


# MODERNIA, POSTMODERNIA

Joxe Azurmendi

Erreferentzia beti LARRUN-eko Beltzaren artikulua izango dut: «*Modernitatea eta Gu*» (2. zenb., 1985eko Abendua, 79-85). Beste ezertatik baino gehiago, gizarte egoeraren aztarnetatik baino gehiago bereziki (Beltzak eginari oso egokia bait deritzot), filosofia aldetik edo joko dut, hori enkargatu zaidanez gero.

Azkenean Beltza baino agian zerbait optimistagoa izango naiz, Modernitate edo Postmodernitate omen delako horren balorazioan. Beharbada zerbait pesimistagoa, Euskadin Postmodernitatean ote gauden arazoan.

Terminologian (Modernitate, Postmodernitate) nahasketaren batzu sor daitezke. Ikusten bait dut hitzak ez ditugula berdin erabiltzen. Espero dut, ez direla nahasketa bihurriegiak izango eta elkarrizketan bertan argituz joango zaizkigula.



J.F. Lyotard  
filosofo  
frantsesa,  
ostmoderniaren  
teorikoetako  
bat.

## Bibliografia labur bat

Bibliografiaz, hainbat izkribu dago, pentsatzen dut gehienak ezagun samarrak direla. Pentsamendu filosofikora mugatuz: LYOTARD J.F., *La condición postmoderna*, Cátedra, Madrid 1984. CAMPILLO, A. *Adiós al progreso*, Anagrama, Barcelona 1985. V.V., *La Postmodernidad*, Kairós, Barcelona 1985. V.V., *La crisis de la razón*, Universidad de Murcia 1986. Postmodernitateaz orokorki, ia klasiko bat, TOURAINE, A., *La société postindustrielle*, Denoël, Paris 1969.

Orokorki baino, halere, Moderniaren auzian Euskal Herrirako interesgarriak iruditzen zaizkidan puntu nagusi batzuen inguruan bakarrik ibiliko naiz hemen. Beltzarenaz gain, J.M. Mardones-en «*Modernidad y Postmodernidad en Europa y el País Vasco*» dago gai honetaz, *Cuadernos de Alzate* 3 (1986) 4-19.

Esan zaidanez, Moderniaren eta Postmoderniaren kontzeptuak filosofikoki zehaztea da, gutxi-gorabehera, egitea tokatzen zaidana. Izenarekin hasiko gara.

## I.— Izenaren inguruan. Historiaren arazoa

Post, ondoren, gero, da. Beraz, Moderniaren ondorengoa da Postmodernia. Postmodernoa (persona bat, arkitektura bat, filosofia) ez litzateke izango modernoaren ondorengoa besterik.

### Modernia, Antzinate klasikoaren berpizkundera

*Modernia*, ez moda eta ez modutik dator, baina latinezko *modo* adberbiotik, bere denborazko adieran, «*orain gutxi, edo berehalaxe*» esan nahi bait du. Edozein orainaldi jakinen lehentxoago edo geroxeago.

Badirudi «*modernus*» forma latinoan VI. mendean agertu zela erabileran; X. mendean erruz erabiltzen da; XIV.ean (ohartuko zarete, jauzi handiak egiten ari garela, baina modernia kontzeptuaren historian tipikoa da jauziok, eta erabileraren polemikoarekin, agertzea) «*via moderna*»-ren polemika sortzen da, eskolastikaren gainbehera gisa azaldu ohi dena. Joera nominalisten borroka, alegia, filosofia aristoteliko-tomista tradizionalaren aurka. Nominalista horien bu-

ru nagusi bezala Ockham ingelesa aipatu ohi da. Baina modernoetako autore inportante bat euskalduna izan da: Joanes Huarte Donibane Garazikoa.

Modernia, edo modernitatea, orainaldi baten izen propio gisa, XVI. eta XVII. mendeetan finkatu da. Gauza ezaguna da Ernazimenduaren atxekitasuna Antzinate greko-latinoari. Hain zuzen Antzinate klasiko haren birjaiotza edo berpizkunde bezala ulertuko dizute beren aldia (Modernia), hori besterik ez bait du esan gura Ernazimendu izenak.

Bien bitartean geratzen den epe luzeari, ez bait zaio karakteristika ohargarririk somatzen, bien erdiko aro erdi-galdu, erdi-betegarri, eritziko zaio, Erdi Aroa. Beraz, Modernia, edo Modernitatea, izen propio gisa, Antzinate klasikoaren berpizkunde esanahiarekin agertzen zaigu: iragan inmediatearen uko gisa eta aurka (Erdi Aroaren aurka), baina iraganagoaren alde.

### Postmodernia, antzinatearen erromantizismo kutsu batekin

Hau kurioso da: Savater batek, bere aldiko filosofia nagusiaren aurka, Jesukristo baino bostehun urte lehenagoko sofistak errebindikatuz protestatzen du. Savater filosofo neo-nietzscheanoa kontsideratu ohi da. Nietzschek berak, filosofia aleman klasikoaren aurka, tragedia grekoa eta filosofia presokratikoa errebindikatuz protestatu zuen. Postmoderno kontsideratzen diren «filosofo berri» frantses batzuek (Benoist, Pawels) neopaganismo bat errebindikatzen dizute, konbentzio eta moral dekadentearen aurka biziaren eta adorea printzipioak altxatuz. Eta, honez gero, gure Mirande neo-nietzscheanoa, neopaganismo eta vitalista, ez daukat gogoratu beharrik postmodernoen konpainian.

Baina oraindik badago kuriosoagorik. Eta da, protestaren eskuin moderno eta postmoderno nahasi honetan, eskuinaren eta ezkeraren kontzeptuak ere nahastu egiten zaizkigula, progresisten eta regresisten kontzeptuak bezalaxe. Ez ditut aipatuko Mistral, edo M. Barrès, etab.; ezta, etxeanago, Navarro Villoslada, Araquistain eta beste gainerakoak. Arana Goirik berak —eskuindarra omen da— bere garaiko demokrazia liberalaren eta Euskal Herri industrialduaren aurka, antzinagoko Euskal Herria eta euskal demokrazia jatorra errebindikatzen zituen.

Krutwigek, ordea, ezkertiar espainolista modernoen aurka, are antzinagoko euskaldunen komunismo jatorra; eta berdin euskara puristaren nahiz batuauren aurka, Leizarragaren arkaismoa, eta grekoaren aberasgarritasuna. Gabriel Aresti jarraitu izanago zuen.

Esan nahi dut, bai Modernia eta bai gero Antimoderniak ere, edo Postmoderniak, antzinatearen erromantizismo kutsu batekin agertzen zaizkigula, XVI.




«Modernia, edo Modernitatea, Antzinate klasikoaren berpizkunde esanahiarekin agertzen zaigu: iragan inmediatearen uko gisa eta aurka (Erdi Aroaren aurka), baina iraganagoaren alde».

mendean bezala XX.ean, eta gure XIX.ean bezalaxe Iraultza Frantsesean. Historiarekiko jarrera bitxi bat da. Eta Beltza (LARRUNeko artikuluan) dimentsio historikoaren falta horretaz mintzatu zaigunez (zentzu historikoaren anbiguitasuna, esango nuke nik), iruzkin batetan luzatu ordez neure aldetik, Habermasen pasarte bat aldatuko dut honera, puntu honean gero ez gehiago sartzeko:

«Observamos la intención anarquista de hacer estallar la continuidad de la historia, y podemos considerarlo como la fuerza subversiva de esta nueva conciencia histórica. La modernidad (nire terminologian 'la Postmodernidad' irakurri behar da) se rebela contra las funciones normalizadoras de la tradición; la modernidad vive de la experiencia de rebelarse contra todo cuanto es normativo. Esta revuelta es una forma de neutralizar las pautas de la moralidad y la utilidad».

«Por otro lado, la conciencia del tiempo articulada en vanguardia no es simplemente ahistórica, sino que se dirige contra lo que podría denominarse una falsa normatividad en la historia. El espíritu moderno, de vanguardia, ha tratado de usar el pasado de una forma diferente; se deshace de aquellos pasados a los que ha hecho disponibles la erudición objetivadora del historicismo, pero al mismo tiempo opone

**Walter Benjamin.  
Habermas-en ustez  
jarrera  
posthistorizista  
batez eraikitzen  
du modernitatea eta  
historiaren arteko  
erlazioa.**



*una historia neutralizadora que está encerrada en el museo del historicismo».*

*«Inspirándose en el espíritu del surrealismo, Walter Benjamin construye la relación de la modernidad con la historia en la que podríamos llamar una actitud posthistoricista. Nos recuerda la comprensión de sí mismo de la Revolución Francesa. 'La Revolución cita a la antigua Roma —aipatzen du Habermasek W. Benjamin— de la misma manera que la moda cita un vestido antiguo. La moda tiene olfato para lo que es actual, aunque esto se mueva dentro de la espesura de lo que existió en otro tiempo...' En este sentido, para Robespierre, la antigua Roma era un pasado cargado de revelaciones momentáneas». (La modernidad un proyecto incompleto).*

### **Bi zutabe ditu Moderniak: Arrazoizkotasuna eta Progresoa**

Gogora dezagun piska bat: Modernia izugarritzko krisi baten kiskalmendutik altxatu da. Inperio sakratua Estatu Nazional deituetan puskatzen da; Jainkoaren errebelazioa bera mila sektatan zatitu da, katolikoak eta protestanteak etengabeko gerretan ari dira beren artean; Mundu Berri bat deskubritu da, hau da, bai Eskritura Santuak eta bai filosofia aristotelikoak mendez-mende finkaturiko munduaren irudia puskatu egin da (eta zeinen umeak ote dira Ameriketako indio horiek, Adanenak ez badira?, eta arimarik ba ote dute?, eta jatorrizko bekatuak?...); eguzkiak berak munduaren inguruan ibiltzen aspertu eta plan to egin du, orain munduak hasi beharko bait du eguzkiaren inguruan bera ibiltzen, Copernicok eta Galileok irakatsita. Hitz batetan, ordura arteko uste eta muste erlijioso, filosofiko, politiko, zientifiko, geografiko, tradiziozko guztiak suntsitu egin dira.

Une berean inoizko deskubrimendu tekniko eta zientifiko harrigarrienak ari dira gertatzen: makina

automatak, polbora eta ipar-orratza batik-bat, nabigazio eta gerrako arteak irauleraziz; baina inprimategia batez ere, kulturaren unibertso berri bat irekiz, konbentuetatik landa.

Mundu zaharra puskatu egin bada, berriari porrokatu ezinezko oinarriak ezarri nahiko zaizkio. Horrela esplikatzeko dira Baconen eta Descartesaren aha-lerinak, jakitearen eta ziurtasunaren erabateko metodo absolutu baten bila. Descartesena, batez ere, ziurtasun osoaren filosofia izan nahiko du. Eta nik ez dakit oraindik, baina oraintsu arte bederen, orduan ezarri ziren oinarriak eta eskemak, ondo ukiezin eta sakratu egon dira luzaro.

Bi zutabe nagusik eutsi dio Moderniari. Arrazoizkotasuna da bat, Progresoa bestea. Biekin egiten da historia. Erdi Aro teokratikoarekin alderatzen badugu, arrazoizkotasunak subjektuaren oinarriakotasuna adierazten du: honez gero giza arrazoimenak irakatsiko du zer den egia eta zer ongia nahiz gaizkia. Ez jainkoak: erlijioa, hori nahi duenaren pribatua izango da; arrazoimenak, gizaki den oren unibertsa. Progresoa, berriz, kristautasuneko eskatologia laikoa edo sekulartua da. Erlijioan Jainkoak denbora linealki azken-fin, *eskhaton*, batetara daramala, esan nahi du: irakurketa laikoan, historiak bere helmuga jakina baduela; gizadiaren askatasun osoa jeneralean.

Zutabe biotatik, hainbat adar zabaltzen da, eske ma osatuz: arrazoizkotasunak zientzia oinarritzen du, zientziak progresoa, progresoak ongitasun moral eta kulturala, giza betegintzarrea eta zoria beraz, hots, askatasun, berdintasun eta anaitasuna. Espero dut, puntu honetan ez dagoela zertarako gehiago luzatu.

### **Arrazoizkotasun abstraktotik berdintasun zampakorrera**

Zer gertatu da? Hasteko, gizakia bere arrazoimenaren aldetik definitzen badugu, gizon guztiak berdinak ateratzen zaizkigu. Gero, ordea, gizaki denak ez dira berdinak, eta berdindu beharra egongo da: diferentziak (hizkuntzazko, kulturazko, nazionalak), hots, pertsonen nahiz herrien partikulartasunak, bigarrentiarraren eta irrazionalaren esferara botako dira eta arrazoimenak horiek gaintzen saiatu beharko du.

Progresoaren ideiarekin gauza bera gertatzen da. A. Campillo-k idazten duen moduan: *«Asociada a la idea de progreso, la tesis del sujeto [subjektu arrazionalarena] permite establecer entre las diversas sociedades una escala evolutiva, permite averiguar cuál de ellas se acerca más al tipo de sociedad y al tipo de conocimiento exigidos por la condición libre y racional del sujeto. El progreso es, por supuesto, un progreso de la razón y de la libertad. Sin embargo, al establecer una jerarquía entre los pueblos, la idea de*

progreso permite legitimar la dominación y la colonización en nombre de la libertad.

*Una colonización ejercida en nombre de la razón. Los dominadores lo son porque se encuentran unas generaciones, unos siglos o incluso unos milenios más adelante que los dominados. Y la dominación no tiene como objetivo declarado esclavizar sino liberar, es decir, hacer avanzar a los pueblos más atrasados, hacerlos progresar, hacerlos crecer y madurar. Esta aceleración histórica de los pueblos más retrasados permitirá llevar a cabo una auténtica homogeneización, una efectiva universalización del conocimiento y de la moral, de los sistemas políticos y de los procedimientos económicos».*

### **Gure ahultasunagatik, aldeko haizeek ere kolokarazten gaituzte**

Guri gerta dakigukeena, da, zenbait autoreren erromantizismo horren zentzua (Navarro Villoslada, Arana Goiri, Mirande, Krutwig) ez tutik ulertzea. Horiek izan zuten, eta modak ere ba omen duen, usaimenik ez izatea, antzinate «mitiko» baten errebindikapenak ezkututzen duen modernotasuna atzemateko: «la fuerza subversiva de esta nueva conciencia histórica (...) contra las funciones normalizadoras de la tradición», «contra lo que podría denominarse una falsa normatividad en la historia». Eta hori oso erraz gerta dakiguke, oso moderno eta posmoderno garelakoan, «arrazoizkotasunaren» kontzeptu funtsean XVII. mendetiar batekin arazoan sartzen bagara.

Kontu zaharra da, eta, inporta ez badizue, Miranderen artikulua txiki bat aipatuko dizuet: «Euskaltasun romantiko baten alde» (ikus Miranderen lan kritikoak). 1959ko artikulua da.

Zalantza gabe jadanik ari zaiguna gertatzen, beste hau da: hain ahula dela gure kontzientzi-untziaren mastapalua, ze geure alde jotzen duten haizeek ere kolokarazi egiten digutela. Azkeneko Moderniari, edo Postmoderniari, historia bost axola izatea, historia ofiziala eta horren normatibitate moral eta sozialak pikutara bidaltzea besterik ez da (zer besterik ez dugu egin behar izaten abertzaleok?).

Baina guri asko interesatzen zaigu, geure historia ez ofizialtxo hori ez ahaztea, borrokan jarraitzeko. Eta zaila gertatzen da «historiatik kanpora» situatu nahi duen mogimendu batetan, «geure historiatxoaren» neurria ondo gordetzea une berean. Batez ere, despolitizazioa, pasotismoa, kontsumismoa eta beselako faktoreak gaineratzen direnean.

### **Gure «historia mitologikoa» ez ahaztu eta ez hartaz lotsatu**

Niri oso polita iruditzen zait «Egin»ek egiten duen ahalegina, borrokaren memoria historikoa gogoratzeko. Hainbeste mespretxatu izan den «historia mi-

tologikoa» bera (*El igualitarismo vasco*, etabar) ahaztu, ez eta hartaz lotsatu beharko genukeenik, ez dut uste. Aspaldiko euskaldun baserritar haiek odol noblekoa aitortu baninduten, nik neuk hortik ez daukat ezer, baina gutxiago dauka, geroari begira memoria hori ere ez daukanak.

Arana Goiri Bizkaiaren independentziaren ilusioz, Aitzol euskal demokrazia zaharraren ilusioz, erreferentzia historiko okerretatik zebiltzan agian; baina independentziaren eta demokraziaren ilusio zuzenez, guretzat. Eta horrekin aski historiaren gaian.



«Arana Goiri eta Aitzol independentzia eta demokraziaren ilusio zuzenez aritu ziren».

## II.— Modernitate kontzeptuaren inguruan, Arrazoikotasunaren eta progresoaren arazoa

Postmodernoak sentitu nahiko bagenu ere (alegia, gizarte postindustrialekoak, etab., nahi diren post-etakoak), ezingo genuke ahaztu, jo eta pasa nahi omen den Modernia hori, lauzpabost mendetako aldi luzea dela. Bacon eta Descartes aipatu ohi ditugu filosofian, Modernitatearen oinarritzaileak bezala.

Hitz batetan: Moderniak, gizadiaren eta giza historiaren eredu unibertuala arrazoikotasun abstraktuaren gain eratzean, askatasuna eta anaitasuna bilatuz, de facto dominazioaren eta berdinketaren eredu zanpakor bat jaso digu. Beltzaren artikuluak erakusten du: herri kulturak serializatu egiten dira, gazteria kosmopolita bihurtu, langileria bera (sindikatuak) bere interes partikularren gainetik ekonomiaren premia eta beharrian «*objetiboetara*» ekarri...

Ohar bat bakarrik: arrazoikotasuna ez da hor airean egoten. Bai demokrazia liberaletan, bai tradizio Herder-Hegeldarreen, Estatuan inkarnatzen da. Horrela Estatua arrazoikotasunaren inkarnazioa, eta une berean arrazoikotasuna historian nagusiarazteko tresna, bilakatu da. Kontrolaren jainkoa eta arrazoiaren jabe bakarra.



G.W.F. Hegel. «Bai demokrazia liberaletan, bai tradizio Herder-Hegeldarreen, Estatuan inkarnatzen da arrazoikotasuna».

## III.— Postmodernia kontzeptuaren inguruan

Modernitatearen definizioa hori bada, nahikoa izango genuke buelta ematea, postmoderniarena edukitzeko. Alegia, postmoderniak «*antimodernia*» esan nahi duen neurrian. Aisa ulertuko da, niri —euskaldun izanik— frango positiboa iruditzea. Baina postmoderniarena esangura negatiboa eta positiboa hobeki berezteko komeniko da.

Aurretik ohartxo bat: Postmoderniarena kontzeptua ipar Ameriketako soziologian eta arte kritikan erabili izan da gehienbat; gutxiago literaturan (batzuetan postestrukturalismoaz hitzegiten da hemen; baina ikus HASSAN, I., *The Dismemberment of Orpheus: Toward a Post Modern Literature*, Oxford UP 1971), eta filosofia akademikoetan —nik dakidala— apenas erabiltzen da, Espainiatik kanpora. Bestalde, ezingo litzateke ukatu, literatura filosofiko bat izan dela, postmoderniari prestantzia soziala eman diona, moda itxura batetaraino: Bataille, Michel Foucault, Derrida, Baudrillard, Lyotard, etab. Frantsesak, bezaraz, eta horien jarraitun espainolak.

Halere zaila dirudi, postmodernista bezala zeintzu hautatu beharko genituzkeen, erabakitzea: Lyotard-ek, dirudienez, halakotzat edo dauka Wittgenstein (haren *Tractatus* famatua 1921ekoa da); Mardonesek Frankfurteko Eskola bera (honek 1930 ondorenean burutu zuen bere lana)... Postmoderno omen diren ia guztiak Nietzschekin lotzen dira: dakizueenez, 1900an hil zen.

### a) Postmodernia negatiboki

#### 1.— «Gaur progresoan inork ez du sinesten...»

«Gaur PROGRESOAN inork ez du sinesten, horregatik postmodernian gaude», esaten badut, esaldi hori ulertzen da.

Zer da, baina, ez-sineste horretan sinesten ez dena? Progresoaren kontzeptu klasiko edo modernoan, hitz horrek hiru espazio betetzen zuen:

1.— Aurrerapen *tekniko-zientifikoarena*, natura menpetik gizona askatuz: hots, askatasunarena (pertsonek, sozialki, politikoki).

Egia da, ez dugula sinesten: gizarte modernoak ugari egin ditu loturak, menpekotasunak eta kontrolak.

2.— Aurrerapen *moralarena*: progreso tekniko-zientifikoarekin batera, gizakia moralki ere hobea

tu egingo zela, postulatzeko zen. «Eskola bat irekitzea, gartzela bat ixtea da».

Hori ere ez dugu sinesten: ez indibidualki (nik, gure amak baino kultura gehiago dut, baina «moralki hobea» naizenik pentsatzea ez zait burutik pasatzen inolako «hobetasun moralaren» zentzutan); ez sozial eta politikoki ere (ea Hitler moralki hobea den Zesar baino; Inperio espainola hobea Inperio Erromatarra baino...).

3.— Aurrerapen *estetikoarena*: zein zentzu dauka, ordea, Mahler-ek Bach «*gaintitu*» izateak? Poesia modernoak Homero «*gaintitzea*» zer da?

Hori dena ez da sinesten: ez sinestu baino gehiago, hori «*fedea progresoan*» aspaldian ahaztu egin da, eta ulerkitza egiten zaigu, horrelakorik lehenago sinestu izan denik sinestea (Condorcet, etab.). Berdin, anaiagoak ote dira gaurko gizonak, Erdi Arokoak baino? Zorionsuagoak, Santimaminekoak baino?... Honez gero inork ez du mundua kategoriatan horietan epaitu nahi.


Halere, ordea, —eta hemen dator komeria— nik uste dut, funtsean berdintsu jarraitzen duela fedea progresoan. Edukinik ez du, modernitatean zeukanaren aldean behintzat. Baina efikaziarik ez du batere galdu, sentidoa galdu arren. Progresiaren lilurak nola sozialki erakargarri jarraitzen duen ikusteko, aski dugu egunotakoxe kanpainari begiratzea: EE eta PSOEek progresismoan oinarritzen dute beren legitimazioa eta mezua; EAK berdin egiten du EAJ/PNVarekiko; baina Arzalluz ere gertu dago Bandresekin eztabaida publiko baterako, zein den progresistago. Moderno eta progresista agertu beharraren presioa garbi dago egunotan. Zer ulertzen da, ordea, zehatz-mehatz, progresoarekin eta progresismoarekin? Espejismo hutsa da, baina efikaza.

## 2.— «Arrazionalitatea ez zaigu interesatzen»

«*Postmodernian ARRAZIONALITATEA ez zaigu interesatzen*», esan genezake bigarren lekuan.

Izan ere, arrazoimenak orokortasuna ezagutzen du, unibertsaltasuna (partikularra bakarrik atzeman dezakeen sentimenitsuak ez bezala); unibertsaltasuna eragiten du, bide batez, partikularitasunak ezikusiz edo erdeinatuz. Are, bada, legea du arrazoimenak berezkoa (zientzietan nahiz bizitzan), ez askatasuna, ez diferentzia. «*La tesis del sujeto —berriro Campillo aipatuko dut— es la tesis de la absoluta identidad, de la absoluta universalidad: todos los hombres somos iguales, todos somos en realidad un solo hombre, y cada hombre es a su vez todos los hombres...*».

Funtsean Modernitateko arrazoimenaren tesiak askatasunaren eta progresoaren tesiekin bat egiten du, eta lehengora gatoz. Ilustratu arrazionalista mo-



derno batek arrazoi guztia zuen apika, beste ezertan baino arrazoimenean bakarrik fidatzeko: ez zuen ikusten beste biderik, hainbeste superstizio, dogma, lotura tradizional erlijioso eta politiko-feudaletatik askatzeko. Arrazoimenak senda zezakeen gizadia gaitz guzti horietatik. «*Pero ello, claro está —Campilloekin jarraituz—, a condición de que no pensemos exclusivamente en términos individuales sino colectivos, no en el pequeño mundo que está a nuestro alcance sino en la gran esfera planetaria que alberga a la especie humana, no en nuestra escasa y mezquina biografía sino en la prolongada y grandiosa historia de la humanidad. Es precisamente esta subordinación de lo individual a lo colectivo, de lo particular a lo general, de lo singular a lo universal, lo que hace que la liberación se cumpla a través de la dominación, hasta el punto de que el progreso de la humanidad se convierte en una especie de voraz divinidad a*

«*Literatura filosofiko bat izan da postmoderniari prestantzia soziala eman diona*». Michel Foucault argazkian.



**Ludwig Wittgenstein.**  
Bere «Tractatus»a (1921) postmodernoa da Lyotard-entzat.

la que hay que sacrificar bienes, nombres y pueblos enteros».

Arrazionalitatearen eta progresoaren izenean, euskal Foruak, hizkuntza (gogora Unamuno!), ohiturak, lurralde mugak sakrifikatu ziren. Baina, harez gero, askoz gehiago da, sakrifikatu jarraituko dena. «No cabe duda —idazten du Mardonesek— de que la dignidad humana, la libertad y la justicia han encontrado en los espíritus ilustrados unos fuertes puntales, pero también en su nombre, el de la razón, el progreso o la libertad y justicia se han cometido atrocidades, explotaciones, colonialismos, guerras con decenas de millones de muertos, y hoy mismo, la barbarie amenaza con aniquilar la humanidad. Cada vez más, la corriente de los críticos de la sociedad moderna ha denunciado la 'dialéctica de la ilustración' (Horkheimer/Adorno) o la conversión de la razón en mito y el avance de la superstición y la barbarie por los caminos de la modernidad».

Hori dena, Frankfurtoko Eskola eta Marcuseren gizaki dimentsiobakarretik ez dakit norenganaino, hain esana eta birresana dago aspaldian, ze, beti epigono tristearena egin beharraren lotsa piska bat ematen bait du, gaur hemen horretaz aritu beharrak. Horregatik, parentesi bat egitera pasako naiz, adierazpen negatiboaren puntua bukatzeko.

### 3.— Ohar bat bi partetan

Ez dut uste, Postmoderniak osoki ustekabeen harapatu gaituenik. Gertatzenago dena, apika, beste hau izan daiteke: edozein gauzak (pentsamenduk, modak) arrakasta handiagoa duela gure artean, uhin berria Madrildik badator, bertan sortuta baino. (Zerk, bistan da, ez nauen ezer kontsolatzen).

Zaharragoa naizenez, esan beharrean nago, orain borroka armatuaren eta erresistentziaren moralak kraska omen diezagukeen modernitatearen kritika edo postmodernia hori (eta ORAIN horixe egin leza-keenik ez dut ukatuko), gure artean borroka armatua baino lehenagokoa eta haren laguna izan dela. Miranderekin, Krutwigekin, Txillardegirekin, etab., 1950 ondorenean (egia esateko, espainolez horrelako zerbaitetan ametsik ere egin ezin zitekeenean) hasi bait da tradizio europar moderno guzti horren aurka, laguntzaile harturik Nietzsche, Unamuno, existentzialismoa, budismoa bera. K. Mitxelenak, ordurako, Europaren defentsan atera beharra sentitzen zuen, orduko gaztediaren erasoei erantzunez, 1960an! (*Idazlan Hautatuak*, 1972, 87). Oker ez bago, kritika horien inguruan sortu zen borroka armatua. Gero, bestelako bide batzuetatik (Frankfurtoko Eskola, Ivan Illich, etab.), kritika horri sendo eutsi diotenetik aski bedi hementxe daukagun bat aipatzea: Eusebio Osa, hain zuzen.

Dena dela, beranduegi ez gabiltzanean, goizegi ibili garelako, guretzat beti kalamitatea da nonbait, erdarazko otsoekin batera ez ulu egitea...

### Bigarren oharra: arrazionalitatea kontzebitzeko modu desberdinegiak daude

Bigarren oharra delikatuagoa da. Baina kezka oso personala dut hau.

Arrazionalitate famatuaren kritika zaharra da. Kritika soziala eta politikoa, batik bat (gizarte superadministratua, Orwell 1984, etab.). Goraxeago agertu da. Propioki filosofiaren arloan, aldiz, Ilustrazio modernoari bere arrazoimenaren autonomia abstraktuaren ilusioa birrindu dion datu pila dago. Filosofia-aren desarrollo garaikide kasik osoa: arrazoimena gizonaren zerbitzuan dagoela, erakutsi da, hots, arrazoimen teorikoa bera kondizionatua dela eta gizona ez dela arrazoimen hutsa (Kant); bestalde, arrazoimenak bere delirioak dituela (Kant, baina baita Goya ere); arrazoimena Bizitzaren eta Bizitzaren interesen zerbitzuan dagoela (Fichte, Hegel), beraz, ez dela ilustratuek uste bezain «*irrazionala*», eta ez autonomoa; borondatearen zerbitzuan dagoela eta borondateak manejatzen duela (Schopenhauer), funtsean «*irrazionala*» dela alegia; espejismo hutsen sortzaile, mistifikatzaile eta deshumanizatzaile dela (Nietz-

sche)... Freudek, azkenik, erakutsi du, gizakia barren-barrendik egiaz mugitzen duena, sub/inkontziente horiek omen direla, arrazionalitatearen mito autoengaino bat izaki... Egungo hizkuntz filosofiekin, filosofia hermeneutiko eta existentzialekin, postmodernoekin, jarrai genezake.

Filosofian aspaldi ikasi da, arrazoimena eta arrazionalitatea oso kontuz-kontuz bakarrik ahotan har litezkeen kontzeptuak direla. Arrazionalitatearen kontzebitzeko modu desberdinegiak elkarri kontrartzen zaizkiolako historian (zer ikusi beharko ote dute Descartesen arrazionalitateak eta Humerenak?). Valls Planak idatzita daukanez: *«es demasiado fácil tachar de irracionalismo a lo que no se ajusta a un determinado concepto de razón»*. Inor interesatua egonez gero, badago K.O. Apel-en estudiotxo bat, *«El problema de una teoría filosófica de los tipos de racionalidad»*.

Baina nik uste dut —komeriarren bigarren partea— progresoareen gauza bera gertatzen zaigula arrazionalitatearekin. Gaiztoa bezain arma efikaza da, eta gustora erabiltzen da, sozialki: Baina hemengoa ez da komeria, tragedia da.

Arrazionalak izatea eta egia ezagutzailerak izatea berdinez, *«arrazionalak gu gara»* bistan da, eta *«arrazionalitatea gurea da»*. Guk daukagu arrazoi (Guk, zuek bezala nik, hori aldarrikatzen ez badugu, besteak aurrea hartu digulako bakarrik da, arrazionalitatearen monopolioan. Ze, gizonaren berezko joera da, bestela, bere buruan sinesten duen adina bere arrazoiaren eta arrazionalitatearen sinestea, sinestu behar izatea). Zer gertatzen da, ordea, arrazionalitatearen norgehiagoka, are eskusibismo joera honetan?

Ez da intolerantzia kontua bakarrik (intolerantzia izugarria ezkututzen duela salatu egin behar da hairel). Ez dira izaten onak elkarbizitzan, gizalegean, ezer demostratu ordez, dena (des)kalifikatzen duten adjektibo pasionalak (*«traidoreak»*, *«salduak»*, etab.). Intolerantzia arruntaren mila kalifikatibo itxusiren aldean, beste hau, ordea, nazien pareko hizkuntza da, itxura inofentsibo eta inkluso prestu samarraren azpian presentatzen delako hainbat pozointsuagoa. *«Gu, arrazionalak; zuek, besteak, irrazionalkeria hutsa»*... Estea bezala da: *«Zuek, judegu infragizonak... madarikatu arratoiak»*.

Gizakia bere arrazoimenarekin definitzen bada, arrazionalitatea guretzat monopolizatu nahia, etsaia-ri pertsona izatea bera ukatzea da eta pertsona barkartzat geure buruak aitortu nahi izatea. Seguruenik ez da hori egin nahiko, baina hori egiten da, arrazionalitateak pertsonaren definizio bezala funtzionatzen duen testuinguruan.


Irrazionalak ez dira pertsonak. Begira, ez da aspaldikoa: *«En tanto que una familia enterraba tres cadá-*

*veres, treinta mil voces malditas, treinta mil mentes de cafres, treinta mil batasuneros que se dicen abertzales, por las calles de Bilbao...»* Horiek ez dira gizonak, piztiak dira. Eta desgizonarekin (*«ETA-ratas»*, etab.) badakizue Estatuak eta Inperioak, zilegi zer izan duten egitea, arrazoizko jende prestuaren hiriak arratoi zikinetatik desinfektatzeko.

Arrazoiaren delirioak.

## b) Postmodernia positiboki

Hemen zailagoa da, ezer garbirik ongi mugatzea. Postmoderniak egoera kultural orokor bat adieraz dezake (*«el estado de la cultura después de las transformaciones que han afectado en las reglas de juego de la ciencia, de la literatura y de las artes a partir del s. XIX»*, Lyotard). Jarrera batzuk adieraz ditzake. Ez dakit, ordea, doktrinarik adierazten baldin badu, zein den hori.



### «Disziplina falta» pentsamenduaren askatasunerako positibo daiteke

Doktrina berezirik propioki gabe, batzutan esaten da, *«diskurtso modu»* bat dela. Arrazoi estilo bat. F. Jamesonek, adibidez, *«esta nueva clase de discurso, generalmente asociado a Francia y la llamada teoría francesa, se está extendiendo y señala el final de la filosofía como tal. Por ejemplo, ¿hay que llamar a la obra de Michel Foucault filosofía, historia, teoría social o ciencia política? Es algo que no se puede determinar, y yo sugeriría que ese discurso teórico ha de incluirse también entre las manifestaciones de postmodernismo»*.

Horrela hartuta, disziplina akademikoak berak ongitxo disziplinaturik dauzkan sistemari ihes egiteko, *«disziplina falta»* hori, positiboa izan liteke pentsamenduaren askatasunerako, sozial-kritikoa eta argigarria, alegia. Diskurtso modu hori, liburuetan baino, kalean ere badabil.

*Jada ez du inork sinesten aurrerapen tekniko-zientifikoek gizona askatuko dutenik.*



Zentzu horretan, ekologista bat, berak ez uste izan arren, diskurtso ofizialetatik kanpo situatzen da. Askotan sistemak bezalaxe arrazonatuko du. Baina gizarteak inposatzen dion sareak harrapatzen duela. Bera ez da progresoarene entusiasta bat, «*progre-soaren etsaia*» bezala agertzeko beldurrez ibili beharko badu ere. Feministekin berdintsu gertatzen da seguruenik.

Igoal arrazonatuko dizute, manager izateko gizonak bezain trebeak direla emakumeak: baina trebetasunarena ez da beren kezka, inposatzen zaien planteamenduari erantzun beharrak ezarria baino. Berez sistema erregulatzen duten balioetatik kanpora mugitzen ari dira. Baina kontra egin nahi duten neurrian, erraz eror daitezke haren barrura. Asanblaristekin, Auzo Elkartekin, irrati libreekin, rockeroekin, etab., berdintsu gerta daiteke. Positibotzat hartuko nuke, halere, diskurtso ofizial ohoragarriaren aldean, beren diskurtso propioa garatzen saiatzea.

### **Maila pertsonalean askatzaile dena, zertan geratzen da publikoan**

Orohar, inork positiboki definitzen ez dakien pentsamendu postmoderno horren ezaugarri arruntak dirudite eskeptizismoak, ofizialtasun guztietatik distantziak (eta ofizialtasun horiek eskola filosofiko batzu izan litezke), sinkretismo nahasi batek. Marxen elementu pila bat hartzeko ez da erreparorik edukiko, baina askoz zailagoa izango da inor osoki marxista aitortzea. Inolako sistemarik ez da nahikoa. Filosofia literaturarekin nahastuko da (Derrida; U. Eco, Dürrell, ez aipatzeko). Libertatea izango da hori, edo tiro guztietatik libre geratzeko modu komodoa izango da, norbera ezerkin konprometatzen ez duelako.

Filosofiaren azkena gabe, pentsamendu postmodernoaren sistemen azkena bada, autore gehienak egia da horrelatsu ikusten ditugula: Marx piska bat eta piska bat Heidegger, Lacan eta Wittgenstein apur bat, Nietzsche dexente, ezereen ortodoxia gutxi eta edozeren cocktail asko. Artean collagea eta argazkian muntaia diren bera pentsamenduan.

Bakarrik: agian maila pertsonal pribatuan askatzailea, edo-eta erremediatu ezinezkoa, gerta dakiukeena («*eskolak*» handiegiak dira guretzat, eta ez gara haietan kabitzen), zertan geratzen da maila publikoan? Beldur naiz, «*diskurtso pollitean*» geratzen dela. Mundu guztiari gustatzen zaion filosofiatan. Estetikoa, formetan zein helburuetan (nik ez nioke etikoa esango). Funtsean beti pertsonal eta intimista.

Hemen berriro azpimarratuko nuke nik, hori ere ez zaigula oraintxe bapatean gaineratu. Gure artean literaturak produzitzen duenari begiratzen bazaio, gutxienez hamar urte eta gehiago da, intimitatera jo duela, poesian lehenengo eta narratiban gero. Borro-

ka urte gori-gorietan. Zulaikaren **Adanen poema amaigabea**-ri aspaldi samar erantsi nizkion oharrak gogoratzen ditut. Euskal kantak bide berdintsua eraman du.

### **Arrazoi-pertsonal-intimistak eta borroka elkar daitezke**

Intimismoa, borroka-etikaren kontrarioa ote da? Bai eta ez. Esaten bada, «*ni neu bakarrik nago hemen, hauxe da nire konkretutasun bakarra, eta behin bakarrik biziko naiz*», agian ondoriozta daiteke, aberriaren alde, abstrakzioaren alde, bizitza emateak zentzurik ez daukala. Baina, bat, logika hori beharrezko bakarra ez dela frogatzeko, aski da existentzialismoa gogoratzea (Sartre bat, adibidez).

Eta, bi, logika horrek, logikarik baldin bada, premisetan tranpa eginez bakarrik balioko luke: hots, presuposatuz, nitasunaren konkretutasun ukaezinari oposatzen zaion aberria zinez abstrakzio bat dela. Oraindik asko dira, ordea, Euskal Herrian, aberria oso konkretu sentitzen dutenak. Inoiz baino konkretuago: bere ibaien eta hirien ekologiarekin hain zuen, eta sexo bat ezezik pertsonak izan nahi luketen bere alabekin (horregatik sexoa galdu gabe, espero dut: begiak, belarriak, eskuak ere galtzen ez ditugun moduan, honela edo bestela pentsatzeagatik), eta bere mediokritate infinitoarekin, eta San Telmo horrekin edo Zorroaga honekin, eta bere presoekin, eta Eguerri tristeeekin, etab., etab., ez independentzia abstraktu baten aspirazioarekin bakarrik.

Puntu hau bukatzeko: intimitatea denok daukagun zerbait da, ez poeta bakarrik. Zuek eta nik, Herre-rako presoek, Comando España-ko kideek, Yo-yes-ek, Goardia Zibilak. Bere kontsiderazioetan baztertu egin nahi izaten zuen Estatu modernoak orain horixe aprobe txatu nahi izatea, borrokaren kontra, ez da derrigor plan baten emaitza, guztiz da naturala. Baina alderantziz ere, biolazioen aurka nahiz abortoarene alde, esate baterako, «*nire gorputza nire da*» bezalako arrazoiak entzuten ditudanean, arrazoi-pertsonal-intimistak eta borroka elkar daitezkeela, iruditzen zait. Behinolako Labeguerieren edo Monzonen kantez oroiturik, beti horixe egin dela pentsatuko nuke. Eta ez intimitatea, baina intimitateaz ahaztea dela, iruditzen zait, pentsamendu borrokaren arrisku handiena. Euskadi libre, bai: baina ni ere libre. Euskadin eta libre.

## **IV. Zertan gauden**

Munduan gauden neurrian, edonondiko eraginena azpian, postmoderno edo postindustrialaren omen den mundu horretan, zertan gauden erantzuteko hiru korrante berezi ohi dira:

## Korronte kontserbakoia

Anti-ideologikoa, etab. Baina, mendebaldean, kontserbakoia deritzon taldea oso desberdina eta, niretzat, oso aberatsa izan ohi da. Eskeptiko eta frango liberalenetatik (R. Aron bat, agian) positibistenganaino (Popper eta bere ingurua) hel daiteke, eta «*neokontserbakoia*» deitzen direnenganaino (USAko eta Alemaniako hainbat soziologo). Azken hauek bereziki, pentsamendu moderno guztiarekiko dira oso kritikoak, baina tradizioaren, moralaren, lotura sozialaren defentsan. Libertinajea, lanerako moral falta, mogimendu ezkertiarren «*totalitarismoa*», intelektuaren eragin disolbatzailea, idealen falta, birtuteen desbaliapena, hedonismoa, gogor salatzen dituzte.

Espanian ez dut uste garrantzia handia dutenik (teoria mailan; praktikan duen indarra besterik da, aski bait da dibortzioaren aurka, eskola pribatuaren alde, etab., altxatzen diren mogimenduak ikustea); Europan eta Ameriketara korronte bortitza da. Hauen ustez gizartea «*modernogia*» litzateke eta piska bat disziplinatu beharra legoke: Aita Santuak eta Reaganek badakite nola egin.

## Korronte kritikoa

Egiaz modernoak izateko asko falta zaigula oraindik, esango dute. Modernitatea bidearen erdian geratu dela. Alegia, modernitatearen helburua askatasuna izanik, progresoa eta arrazoa medio hutsak zirela, baina helburu bihurtu zaizkigula. Beraz, modernitatea oraindik «*bukatu edo burutu gabeko proiektua*» izango litzateke (J. Habermas), hori radikaltzea eta burutzea izango bait genuke postmodenia horren egitekoa.

Bitartean, bai iraultza liberalen eta bai esperientzia sobietarraren hutsak ikusi ahal izan direnez gero, planteamenduak radikaltzea tokatuko da, abandonatzea baino. «*Ezker berri*» europar eta amerikarrek bide horretatik ibili nahi izan dutela, esango nuke: urteak pasatzen ari dira, ordea, eta ez da ikusten, ezker famatu horiek urteekin zahartzea besterik lortzen dutenik, Alderdi Berde batzuen momentuko arrakasta gorabehera.

## Beltzak deskribatzen dituen horiek

Eta ez dakit zein izendapen egokitu litzaziekeen (propiokiago «*postmodernoa*» agian). Ongi saltzen badira ere, azkeneko moda eta garraisia omen badira ere, Habermas batek «*Los jóvenes conservadores*» deitzen die.

«*Afirman como propias —dijo Habermas— las revelaciones de una subjetividad descentralizadora, emancipada de los imperativos del trabajo y la utilidad, y con esta experiencia salen del mundo moderno. Sobre la base de las actitudes modernistas justifi-*




*can su antimodernismo irreconciliable. Relegan a la esfera de lo lejano y lo arcaico los poderes espontáneos de la imaginación, la propia experiencia y la emoción. De manera maniquea, yuxtaponen a la razón instrumental un principio sólo accesible a través de la evocación, ya sea la fuerza de la voluntad o la soberanía, el Ser o la fuerza dionisiaca de lo político. En Francia esta línea conduce de Georges a través de Michel Foucault, a Jacques Derrida.*

Pasarte honek asko dibertitzen nau. Ez bakarrik hain «*progretzat*» hartu ohi diren autore batzuk, Zorroagako «*progresiaren*» orakuluak, eskuindar eta atzerakoi deklaratzan dituelako, baina beste zera zahar hura dakarkidalako gogora: gure «*erromantikoak*». Urteetan Euskal Herria idealizatu omen zutenen bizkarretik farre egiten ibili gara, baserri txuriak eta «*ikusten duzu goizean*», industria kondentatzen zuen Txomin Agirre eta Orixeren poema arkaikarra.

Horixe bakarrik behar genuen orain: azken orduko progreenak funtsean horien gisakoekin entronkatzen..., modernitatearen ihesi horiek ere, irudimena- ren eta emozioaren barne-mundu arkaikoan babesa bilatuz! (Arrazoimen astunaren gainetik intuizioz eta sen poetikoz ikusten duten gnostikoekin eta mistikoekin, erromantikoekin eta Schopenhauer-Nietzscharrekin). Nola zioen Foucaultek? Botere ezarriaren diskurtsotik eta arrazoizkotasunetik bazterrerara geratu diren gaisoak, eroak, eskizofrenikoak... eta horien arrazoa. Hamar bat urte izango da, ohartarazi zela alderdi hori: «*beraz, baserri baketsu, garbia kantatzea, garaitasunaren ukoa da industrialdi honetan. Antimodernia da*» (Orixeren alde).

«*Irrazionalak ez dira pertsonak. Eta desgizonarekin ('ETA ratas' etab.) badakizue Estatuek eta Inperioek, zilegi zer izan duten egitea, arrazoizko jende prestuaren hiriak arratoi zikinetatik desinfektatzeko.*»



**Sinkretismoa da  
pentsamendu  
ostmodernoaren  
ezaugarri,  
artean collagea  
eta argazkian  
muntaiak  
bezalaxe.**

Hori dena dago. Esango nuke, halere, «progreen» zinezko progresia edo kontserbakoikeria baino, Beltzak seinatzen dituen gure egiazko problemak, bestelakoak direla eta beste nondibait sortzen direla. Alegia, doktrinen baliotik baino, de fakto zein jokotan sartzan direnagatik. Horrela balitz, arriskua ez litzateke pentsamendu postmodernoan bertan egongo, baina batzuek egiten duten haren erabileran.

### **Intelektualen paper klasikoa itzali egin dela gizartean? Hemen alderantziz**

Begira. Periodismo berri bat dago. Gero, Euskal Herrian, Unibertsitate bat badago: sekula eztaiko ikasle eta irakasle tropak dauzkagu, etab. Osotasun pretentsiorik batere gabe, azterketarako puntu batzu aipatzera noa. Zeren-eta ideiek ere, azkenean, beren ohea behar izaten bait dute, seduzitzeko.

Periodismo berriak asumitu egin ditu hein batetan eta koroatu egiten ditu intelektualak, egunoroko egunkaria berriemaile tradizionala ezezik, irakaskuntzako tribuna ere autoritate osoz bilakatu zaigula. «Filosofia» kalera etorri da. Uste dut, beldur ematen diguna, edo kezkatzen gaituena, ez liburuak esate baterako, baina periodikoetan egunoro irakasten den filosofia hori dela. Ez dut gehiago ezer esango. Badakizue, gogoan batez ere zein egunkari daukadan, probintziatiko imitazioak aparte.

Postmoderno amerikano nahiz frantsesei irakurtzen diet, intelektualaren paper klasikoa itzali egin dela gizartean. Hemen justu alderantziz gertatzen da, beharbada «demokrazia» honetan oraindik beste inon ez bezalako legitimazio problemak daudelako. Opzio politiko txit konkretuak legitimatzeko nahiz deslegitimatzeko, intelektualen sinadura zerrendak erabiltzen dira: EEren alde, biolentziaren aurka,

OTANen aurka nahiz alde, egunotantxe Txiki Benezaren opzioaren lagungarri.

Baina intelektual horiek, gauzak horrela legitimatzeko/deslegitimatzeko, interes politikoen gainetik egotearen aureola behar dute. Paper horrekin batera, orduan, aureola horren kultiboa desarroilatu da. Intelektual militantearen lekuan, intelektual «moralita eta neutrala» altxatu da santu-irudi nagusi. Sistemak orain behar duen zerbitzu modurako intelektual modua.

Espainiaren presentzia kultural beti handia, Unibertsitatearekin areagotu egin zaigu Euskal Herrian. Unibertsitate horrek, dauzkanak dauzka, irakasleak eta ikasleak, ez gehiago. Dauzkanak dauzka, programak ere. Eta ez dira inongo gizarterik askatzeko pentsatuak. Has nindeke zehazten: hain zuzen gure aldekoa ez den intelektual ugariren presentzia handiagoa eta hurbilagoa; abertzalea litzatekeen irakaskuntzaren beraren loturak eta kondizionamenduak, aurrerapide akademikorik aurkitzeko (ezaguna da Unibertsitateko «padrinato» sistema); ikasle nahiz irakasleen karrerako lan akademikoak egin beharra, «neutralak» alegia, ez obra militanteak, etab.

Guzti horrekin azken finean sortzen den giro kulturala (intelektuala, literarioa) da «la melancolía y el eclecticismo que inundan la producción cultural de nuestro tiempo, por no mencionar el tan pregonado pluralismo», C. Owensekin esateko.

### **Inguratzen gaituen produkzio kulturalaren eskematxo gisa**

Orain, bukatzeko, inguratzen gaituen produkzio kulturalaren eskematxo bat eskaintzen badut, edozein gizarte eta denborari aplikatu lekiokkeen moduko arrunta izango da, ez oraingoaren espezifikoia.

1. Sistemaren aurkako pentsamendua dago. Estatuaren, beronen arrazoizkotasunaren parametroen etsaia. Nik uste dut, euskal Estatu baten alde dagena, horrelakoa dela. Berdin zait, azterketaren beste maila sutilago batek erakusten badit, inkontzienteki Modernitate horrexen eskemak birproduzitzen ari dela, etab. De fakto etsaia da eta sistema bera ez da engainatzen, hala ikusten duenean.

2. Moderniak, bere krisian, kalenturak izerdia sortzen duen eran, bere defentsan generatzen duena: krisiaren adierazle eta estalki. Beltzak deskribatu dituen jarrerak eta pentsamendua hain zuzen.

3. Baina jarrera etiko-estetikoak, eskeptikoak, intimistak, etab., ez dira derrigor sistemak bere defentsan generatuak. Goiko biek behar dituzte horiek, eta bien orbitan ibil daitezke. Seguruena hauek dira krisiaren produkturik tipikoenak. Eta, beren anbiguositas guztiarekin, neu behintzat, eta uste dut guztiok, denok garenez gero krisialdiko umeak, ezin gara horien aurrean piska bat liluratuta, seduzituta, ez geratu...